

Karlos Linazasoro

Ezer gehiago behar gabe

Liburua oso gustura irakurri dut. Tankera klasikoko poeta batekin egin dut topo, eta gainera, baretasuna helarazten duen batekin. Beharbada, batzuetan pittin bat negarti azaltzen da, baina ezer larririk ez –poesiatik eta poesia barru-barrutik bizi duenarengandik inoiz aldentzen ez den nostalgiaren parte da-eta-. Liburua irakurri ahala, Linazasororen beste liburu batzuk ezagutzeko gogoia piztu zait. Egia esateko, zuzena baino gehiago den olerkari euskaldun honen obra osoa (orain arte argitaratutakoa) ale bakarrean bilduta edukitzea benetako luxua izango litzatekeela ere pasatu zait burutik. Bai, badakit obra osoa argitaratzeko egilea hil arte itxaron behar dela (hala izaten da eskuarki), eta nik ez dut presarik; aitzitik, Lizanasoro zenbat eta gehiago bizi, areago gozaraziko gaitu bere poesiekin. Oso ondo Karlos Linazasoro hau, gustatu egin zait.